

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA

5733

70/2022 EBAZPENA, abenduaren 1ekoa, Herri Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakariarena, lehiaketa sistema bidez enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuak deitzeko dena.

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legeak, seigarren xedapen gehigarrian, iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdietan buru egingo duten irizpideak ezartzen ditu. Honela, bada, ezartzen du, salbuespen gisa, lehiaketa-sistemaren bidez deituko direla 2.1 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen etenik gabe aldi baterako okupatuta egon diren plazak.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak maiatzaren 3an hartutako erabakiaren bidez, 2022rako ezohiko lan-eskaintza onartu zen eta 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko aldi baterako lan-harremana duten langileek aldi baterako betetzen dituzten egiturazko plaza hutsak eskaini ditu. Hori guztia 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan eta azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo eta bigarren xedapen gehigarrietan jasotako aurreikuspenen arabera.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakariaren azaroaren 30eko 67/2022 Ebazpenak HKEEn enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesu horiek arautuko dituzten oinarri orokorrak onartzen ditu. Oinarri horiek laugarren oinarrian ezartzen dute hautaketa-prozesu bakoitzaren berezitasunak deialdietako oinarri espezifikoetan arautuko direla, eta horien beharrezko edukia ezartzen dute.

Ebazpen honen bidez, 6 auditore laguntzaile plaza karrerako funtzionario modura jabetzan betetzeko oinarri espezifikoak onartzen dira, 2022ko lan-eskaintza publikoari –bakarra eta salbuespenezkoa- dagokion lehiaketa bidez enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuaren barruan.

Ebazpen honen bidez deitzen den hautaketa-prozesua HKEEn enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartzen dituen aipatutako 67/2022 Ebazpenean aurreikusitakoaren arabera arautuko da.

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo eta bigarren xedapen gehigarrietan ezarritakoarekin bat etorriz, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen II. tituluko IV. kapituluan (langileak hautatzeari buruzkoa) eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren 1/1988 Legeak, otsailaren 5ekoak, 19.3.f) artikuluan Lehendakaritza honi emandako eskumenez baliatuz, honako hau.

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Lehiaketa bidez enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesua deitzea 6 auditore laguntzaile plaza betetzeko, A1 taldea.

Euskarazko derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunarekin: 4 plaza.

Euskarazko 2. hizkuntza-eskakizun ez-derrigorrezkoarekin: 2 plaza.

Ebazpen honen bidez deitzen den hautaketa-prozesua enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartzen dituen aipatutako 67/2022 Ebazpenean aurreikusitakoaren arabera arautuko da.

Bigarrena.– Oinarri espezifikoak onartzea; oinarri horiek eranskin modura jaso dira.

Eskabideak aurkezteko epea 20 egun balioudunekoa izango da, deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

Hirugarrena.– Alegatutako merezimenduak, baldintzak eta hautagaiek euskaraz jakitea oinarri hauek argitaratu baino lehenago eginak behar dutela izan ezartzea.

Laugarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea xedatzea.

Ebazpen honen aurka, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari buruzko 1/1988 Legearen 27.2.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, interesdunek erreguzko errekurtoa aurkeztu ahal izango diote HKEEren Osoko Bilkurari, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 1a.

HKEEko lehendakaria,
ANA HELGUERA LÍBANO.

HKEEko idazkari nagusia,
JULIO ARTETXE BARKIN.

ERANSKINA

LEHIAKETA BIDEZ ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK, 6 AUDITORE LAGUNTZAILE PLAZA JABETZAN BETETZEKO

1.– Deitutako plazak.

Salbuespenez eta behin bakarrik, lehiaketa sistema bidez, 6 auditore laguntzaile plaza deitzen dira, A1 Taldea, lanpostu-mailako osagarria 24.

Euskarazko derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunarekin: 4 plaza.

Euskarazko 2. hizkuntza-eskakizun ez-derrigorrezkoarekin: 2 plaza.

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako, Ekonomia edo Enpresa Zientzietako Gradu edo Lizentziaturako unibertsitate-titulua edo baliokideak.

Ezagutza espezifikoak Lanpostuen zerrendan jasotakoaren arabera: Auditoretzako eta barne kontroleko teknikak. Aurrekontuetako eta kontabilitateko gaiei buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko eta Estatuko legeria.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

Plaza eskuratu nahi dutenek salbuespenezko egonkortze prozesuen oinarri orokorretako bosgarren oinarrian ezarritako baldintzak bete behar dituzte deialdi hau argitaratzen den egunean.

3.– Deitutako plazei dagozkien lanpostuen betekizun espezifikoak.

– Sartzeko titulazioa. Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako, Ekonomia edo Enpresa Zientzietako Gradu edo Lizentziaturako unibertsitate-titulua edo baliokideak. izatea.

Deialdi honetako lanpostu batzuetan betetzeko betekizuna da euskararen 2. hizkuntza-eskakizuna izatea.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da eta gehienera eskuratu ahal izango den puntuazioa, 100 puntu, euskararen balorazioa kenduta. Prozesuaren kalifikazioa honako baremo honen arabera esleitutako puntuen baturak ebatziko du:

a) Esperientzia orokorra. Esperientzia orokortzat hartzen da auditoretzako egitekoetan eta deitutako plazaren titulazioko postuetan edozein administrazio publikotan, konstituzio-erakundetan edo estatutupeko erakundetan egindako zerbitzuak. Esperientzia hori 0,75 punturekin baloratuko da zerbitzu-urte bakoitzeko, gehienez 15 (hamabost) puntu arte. Urteak zenbatzeko, azken 20 urteetan lan egindako aldien batuketa egingo da, eta, behin batuketa egin ondoren, hilabetetik beherako zatikiak baztertuko dira. Hori guztia, enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuen oinarri orokorren bederatzigarren b.1) oinarrian xedatutakoari dagokionez.

b) Esperientzia espezifikoa. Berriaz bereizita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri, egindako zerbitzu hauek baloratuko dira: Herri Kontuen Euskal Epaitegian auditore, auditore atxiki eta auditore laguntzaile postuetan, A1 Taldea. Esperientzia hori 2,25 punturekin baloratuko da zerbitzu-urte bakoitzeko, gehienez 45 (berrogeita bost) puntu arte. Urteak zenbatzeko, azken 20 urteetan lan egindako aldien batuketa egingo da, eta, amaitutakoan, hilabetetik beherako zatikiak baztertuko dira. Hori guztia, enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuen oinarri orokorren bederatzigarren b.1) oinarrian xedatutakoari dagokionez.

c) Beste merezimendu batzuk.

Atal hau gehienera 40 (berrogei) punturekin baloratuko da.

c.1.– Hautaketa-prozesuak eta lan-poltsak, gehienera 20 (hogei) puntu.

– Herri Kontuen Euskal Epaitegian auditore atxiki postuetan ekonomilari-auditore plazetarako karrerako funtzionario izateko deitutako hautaketa-prozesuetako batean ariketak gainditzeagatik. 20 (hogei) punturekin baloratuko da.

– Herri Kontuen Euskal Epaitegian auditore atxiki, auditore laguntzaile eta/edo auditoretza-laguntzaile lanpostuetarako lan-poltsetan parte hartzeagatik. 15 (hamabost) punturekin baloratuko da.

Aurrekoen artetik aukerarik onena hartuko da aintzat, eta ezin izango dira metatu.

c.2.– Prestakuntza, gehienera 10 (hamar) puntu

– Gradu edo lizentziaturako unibertsitate-titulazioa, lanposturako eskatutakoaz bestelakoak. 10 (hamar) puntu.

– Auditoretzako unibertsitate-masterra eta/edo Kontuen Auditoreen Erregistro Ofizialean sarzako probak gainditu izana: 10 (hamar) puntu.

– Berriazko prestakuntza honako arlo hauetan: finantza-auditoretzako teknikak, informazio- eta barne-kontrolen sistemen operatiba, eta kontabilitateko eta auditoretzako nazioko eta nazioarteko arauak. Aurrekontuetako eta kontabilitateko gaien buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko eta Estatuko legeria. Kontratazio publikoa, dirulaguntza publikoak, hirigintza eta datuen babesa eta lanpostuan betetzen diren eginkizun eta zereginekin zerikusia duten beste batzuk.

0,10 puntu gai horietan jasotako prestakuntza ordu bakoitzeko, gehienera 10 (hamar) puntura arte.

Aurrekoen artetik aukerarik onena hartuko da aintzat, eta ezin izango dira metatu.

c.3.– Herri Kontuen Euskal Epaitegian edo kanpo kontrolen beste erakunde batzuetan erantzukizunak izatea, deitutako lanpostuaren antzeko auditoretzako eginkizunak dituzten lanpostuetan, gehienez 10 (hamar) puntu. Hona hemen zenbatekoak:

Lanpostu-mailako osagarria 24 edo handiagoa: 0,051 puntu hileko.

Lanpostukoa baino lanpostu-mailako osagarri txikiagoa: 0,025 puntu hileko.

d) Euskararen ezagutza. Euskararen ezagutza soilik baloratuko da betekizun ez den lanpostuetan, ez dutelako gainditutako derrigortasun-datarik; hona hemen zenbatekoak:

– 1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

– 2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

Merezimendu guztiak eskabidean/erantzukizunpeko adierazpenean alegatu beharko dira, eskabidea aurkezteko epearen barruan. Merezimenduak lortzeko azken eguna deialdia argitaratzen den hura izango da. Beraz, eskabidea/erantzukizunpeko adierazpena aurkezten den eguna edozein dela ere, merezimenduak deialdia argitaratzen den egunera arte bakarrik zenbatuko dira.

5.– Lan-poltsa.

Deialdi honek ez du lan-poltsarik sortuko.